

**2015eko ABENDUAREN 16an UDALBATZARRAK EGINDAKO
APARTEKO OSOKO BILKURAREN AKTA 17 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko abenduaren 16an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko osko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozueta Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez da etorri	Imanol Lasa Zeberio jn.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, Ordenantza Fiskalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko presa edukita, ezin dela itxoin hurrengo ohiko bilkura egiteko egunera arte.

Ondoren, eguneko aztergai bakarria aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

Bakarra.- 2016. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK. BEHIIN BETIKO ONESPENA

2015eko urriaren 15ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea ORDENANTZA FISKAL batzuen eranskinen aldaketari (udal zerga eta prezio publikoak) 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sartzeko.

Hartutako erabakia eta horretarako ireki den espedientea jendaurrean egon ondoren, epean, honako sinatutako alegazio-idazki hau aurkeztu da:

- **Jose Alberto Gurtubai Arregi:**

Eskaera: 1. Ordenantza Fiskala, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duena, aldatzea. Zehazki, eskatzen du ohiko egoitza ez diren etxebizitzaren errekarria kentzea edo, bestela, 11. salbuespena aldatu eta ezarritako gutxienezko urteko energi kontsumoa murriztea.

Alegazioa aztertu ondoren, eta Gobernantza informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Jose Alberto Gurtubai Arregi jaunak aurkeztutako alegazio-proposamena ezestea, Errentetako teknikariak egindako txostenaren arabera. Txostena, arazoitze-ondorioetarako, akordio honi erantsita geratuko da.

Bigarrena.- Behin betiko onartzea indarrean dauden ordenantza fiskaletan eta prezio publikoen ordenantzan egin beharreko aldaketak, 2016ko urtarrilaren 1eko eragin-dataz.

Hirugarrena.- Ordenantza Fiskalen aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzekoak, 16.4 artikuluan agintzen duena betetzeko, guztien jakinerako eta aipatutako aginduan aurreikusten diren gainontzeko ondorioetarako.

Eta aztertze besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko zazpiak eta laurdenetan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.